

Jardueren Egitaraua 2013

AURKIBIDEA

- 1.- BEKAK ETA IKERKETEN SUSTAPENA
- 2.- ARGITALPENAK
- 3.- PENTSAMENDU ETA HISTORIA ALDIZKARIA
- 4.- GOGOETA ETA ELKARRIZKETARAKO MINTZAGUNEA
- 5.- GAZTERIA
- 6.- URTEURREN HISTORIKOEN GAINEKO DIBULGAZIOZKO LANA
- 7.- ABERTZALETASUNAREN AGIRITEGI HISTORIKOA
- 8.- EUSKAL ABERTZALETASUNAREN MUSEOA
- 9.- SABINO ARANA SARIEN KULTUR JAIALDIA
- 10.- BESTE ERAKUNDE ETA INSTITUZIO BATZUEKIKO HARREMANAK
- 11.- HEDAPENA ETA KOMUNIKAZIOA
- 12.- LORTUTAKO EMAITZEN BALIOESPENA

1.- BEKAK ETA IKERKETA SUSTAPENA

1.1.- Alberto Onaindiaren 1936 eta 1945 bitarteko posta-trukea

Oso izari handiko lan bat da. Orain dela zazpi bat urte hasi zen eginkizun horrek, Vatikanoko Artxiboetan (Erroma) eta Estatuko beste batzuetan sakabanatutako 4.000tik gora dokumentu biltzea, transkribatzea eta oharrak egitea eskatzen du. Xedea da, Jose Antonio Agirre lehendakariaren laguntzailea izan zen Alberto Onaindia apaizaren 1936 eta 1945 bitarteko posta-trukea eta hark hala Gerra Zibilean nola II. Mundu Gerran egindako gestioak berreskuratzea.

Aurtengo urteari dagokionez, 2013an jarraitu egin da bildutako dokumentazio guztia transkribatzeko lanean. Gaur egun, 1942ko abendura arteko ia dokumentazio guztia dago transkribatuta eta zuzenduta, aurreneko irakurketa bat egin delarik. Horrek esan nahi du, dokumentazio guzti-guztiaren (3.400 inguru dokumentu) hiru laurden baino gehiago. Oraindik transkribatu gabe daude 1942ko abendua eta 1945 bitartean datatutako dokumentazioa, guztira 300 bat dokumentu gutxi gotabehera.

2.- ARGITALPENAK

2.1.- “Patria vasca en Argentina: un siglo de nacionalismo vasco”



Magdalena Mignaburu (Buenos Aires, 1955) ikertzaile eta Argentinako euskal diasporaren ikerketan adituak bere azken liburua, *“Patria vasca en Argentina: un siglo de nacionalismo vasco”*, aurkeztu zuen azaroaren 21ean, GOAZ museum-en.

Sabino Arana Fundazioak argitaratutako lan horretan Argentinako euskal abertzaletasunaren historia kontatzen da, kronologiari jarraiki eta argazki-materiala, elkarriketak eta agiri-eranskin bat ere erantsita.

Euzko Alderdi Jeltzalea Argentinan dago harako 1904 hartatik; une horretatik aurrera bilakatzen joan da etengabe gaur egunera arte. Dokumentaziozko oinarri sendo bat abiapuntu, Mignaburuk EAJ-PNVren Lurraldez Kanpoko Erakundearen berezitasunak eta Latinoamerikako herrialde horretan izandako bilakaera deskribatzen ditu, kontuan hartuta, beti ere, Euskadin azken 100 urteotako historian gertatutako aldaketa politikoak eta sozialak eta horrek Argentinako euskal diasporan izan duen eragina.

2.2.- “El exilio vasco en Gran Bretaña”

Gregorio Arrienen lan horrek, Gerra Zibilean eta frankismoaren garaian agitutako haur-erbestaldiari eta ume horien laguntzaile izan ziren pertsonei buruz dihardu. Liburua 2013ko abenduaren azken aldera argitaratu zen eta 2014ko hasieran aurkeztuko dugu.

2.3.- “Historia del Partido Nacionalista Vasco de Mungia (1892-1936)” - “Mungiako Euzko Alderdi Jeltzalearen historia (1892-1936)”



Abendu honen 18an Mungiako Torrebillela Kultur Aretoan “Mungiako Euzko Alderdi Jeltzalearen historia (1892-1936)” izenburuko liburua aurkeztu genuen; mikrohistoria-lan hori Iñaki Larrinaga mungiarrek eginda dago. Aurkezpenean parte hartu zuten, gainera, EAJ-PNVko Bizkai Buru Batzarreko lehendakari Itxaso Atutxaz gain, Sabino Arana Fundazioko lehendakari Juan M^a Atutxak eta

Mungiako EAJ-PNVren Uri Buru Batzarreko lehendakari Aitziber Carlosek, hain zuzen ere Mungiako erakunde horri aurtan bere mendeurren ospatzen dela.

Liburua gerra aurreko garaietan barneratu da, gure aitita-amamek gerra ostean oroiminez “normal denborak” deitzen zieten urte haietan. Larrinagak bere beharrenean ipini dituen ekimenak eta ekinak egiten dute liburu hori ekarpen garrantzitsu bat izatea, tokiko historia eta Mungia eta inguruetakoko euskal abertzaletasuna hobeto ezagutzeko.

2.4.- DEIA egunkarirako artikuluak. Euskal historia eta antropologiako askotariko gai zenbaiti buruz Deia egunkarirako kolaborazio gisa idatzitako artikuluak

2013n zehar Sabino Aranak “Euskaldunen historiak” saileko kolaborazioak koordinatu ditu DEIArentzat. Artikulu horietan, alde edo molde Euskadiren historia moldatu eta zizelkatu duten zenbait gai historiko eta antropologikoren gainean idazten da.

Zeregin horretan Sabino Arana Fundazioak eta Deia egunkariak kolaboratzaile izan dituzte: **Adolfo Arejita, Asier Madarieta, José M^a Otermin, Amaia Mujika, Jesús Ruiz de Gordejuela, Iñigo Bolinaga, Gregorio Arrien, Joseba Agirreazkuenaga, Joseba Lopezortega, Jean-Claude Larronde, Iñaki García Camino, Xabier Irujo, Koldo San Sebastián, Eduardo J. Alonso, Iñaki Anasagasti, Leyre Arrieta, Patxi Lázaro, Beñat Oyhénart, Iñaki Goikoetxea, José Ignacio Salazar, Jon Irazabal, Josu Chueca, Iñigo Camino, Maite Jiménez, Magdalena Mignaburu eta José Ramón Blázquez**, Sabino Arana Fundazioko teknikari eta historialariek gain.

3.- “HERMES” PENTSAMENDU ETA HISTORIA ALDIZKARIA

Aurtengo urtean, 2013an, Hermes hiru zenbaki argitaratu dira, zehazki 43, 44 eta 45 zenbakiak.

Izenburu orokor gisa “Politika-Ekonomia” izan zuelarik, Hermes 43 zenbakian ezagutzaren gizartearekin engaiatutako zenbait adituk eta zientzialarik Politikak, Ekonomiak eta Gizarteak elkarreraginez jarduteak duen garrantzia azaldu dute, bereziki nabarmenduz, hartara gu gauza izatea berrerratzeko beste eredu berri bat,

oraingo krisia gainditu ahal duena. Zenbaki honetan kolaboratzaile izan ditugu: Joseba Barandiaran, Daniel Innerarity, Jon Azua, José Luis Larrea, Juan Manuel Sinde eta Juan José Álvarez. Elkarrizketan, protagonista da Guillermo Dorronsoro, ingeniaria eta gaur egun *Deusto Business Schooleko* zuzendaria.

Gero, 44 zenbakian, “Emakumeak dira protagonista. Emakumeak historian, emakumeak diasporan, emakumeak enpresan, emakumeak gaur egun... Ana Urkiza, Josu Chueca, Arantzazu Amezaga, Iñaki Goiogana, Magdalena Mignaburu mintzatzen dira gai horretaz zenbait artikulutan. Elkarrizketan, Izaskun Astondoak bere esperientzia kontatzen du Areatzako *Pirotecnia Astondoa* enpresako buru gisa.



Eta azkenik, 45 zenbakia, “Zigor Zuzenbidea ETaren amaieran” mintegian egin ziren gogoeten emaitza da. ETaren adierazpenaren bigarren urteurrena, hark bere jarduera armatuari behin betiko uzten ziola iragartzeko atera zuenarena, betetzen zelarik, Javier Mira Benavent, Rafael Sainz de Rozas, Jon

Mirena Landa, Juan Ignacio Echano eta Francisco Letamendia gonbidatuek bakoitzak bere ikuspuntua azaltzen dute, inguruabar berrietan zigor- eta espetxe-politikak hartu beharko lukeen orientazioaz. Aldizkarian jasotzen da, ohi den bezala, elkarrizketa, oraingoan Ander Landaburu kazetariak Margarita Uria Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko mahaikideari egin diona.

4.- GOGOETA ETA ELKARRIZKETARAKO MINTZAGUNEA

MINTEGIAK:

4.1.- “Identitateak eta askotarikotasuna Europar Batasunean”



Sabino Arana Fundazioak eta Europar Demokraten Institutuak (IED) antolaturiko mintegi horretan, zein egin baitzen joan den maiatzaren 3an, hogeita hamar bat europar politikari eta aditu bildu ziren, Europaren integrazio-prozesuarekin zerikusia

duten zenbait gairi buruz hitz egiteko eta beroriek aztertzeko; besteak beste, EBren baitako identitate kultural eta politikoen gaur eguneko egoera.

Hizlariak izan ziren: **David McCrone**, Edinburgoko Unibertsitateko Eraentza Institutuko zuzendarikidea eta identitate nazionalari eta nazionalismoei buruzko gaietan aditua, eta **José Manuel Castells**, EHuko Administrazio Zuzenbideko katedraduna. Orobat, elkarraldian arloko adituz osatutako talde hautu batek parte hartu zuen; hor izan ziren, besteak beste: **Nekane San Miguel**, Magistratua. Eusko Ikaskuntzako Zuzenbidea Saileko presidentea; **Montserrat Auzmendi**, Eusko Legebiltzarreko letratu nagusia; **Diego Ercolani**, (IED); **Vlasta Kunova** (IED); **Derek Doyle**, Erresuma Batuaren Bilboko kontsula; **Giulia Massoti** (IED); **Juan José Álvarez**, EHuko Nazioarteko Zuzenbide Pribatuko katedraduna eta Gobernanza – Eraentza Demokratikoko idazkaria; **Flaminia Baffigo**, IEDko koordinatzailea; **Álvaro Baraibar**, Historian doktorea; **Pilar García de Salazar**, EAJ-PNVren EBBko idazkaria; **Xabier Ezeizabarrena**, abokatu eta Ingurumen Zuzenbideko Masterreko Administrazio Zuzenbideko eta abokaturaz sartzeko Master ofizialeko irakaslea EHUn; **Iñaki Ibarrondo**, Eusko Ikaskuntzako presidentea; **José M^a Etxebarria**, EAJ-PNVren Kanpo Harremanetarako Batzordeko kidea; **Igor Filibi**, Nazioarteko Harremanetako irakaslea eta Europar Integrazioan Masterduna; **Imanol Galdós**, Donostia Kulturako Zuzendaritzaren Laguntzarako teknikaria; **Iñaki Goikoetxeta**, EAJ-PNVren EBBko burukidea **José Félix Merladet**, diplomazialari ohia; **Luis Javier Pérez**, Nazioarteko Gaien analista; **José Antonio Rodríguez Ranz**, Sabino Arana Fundazioaren gogoeta eta elkarriketarako mintzaguneko koordinatzailea; **Gorka Román**, EHuko ikertzailea; **Tomás Urzainki**, abokatu; **Iñigo Zabalza**, abokatu; eta **Christos Iacovou** (IED).

4.2.- “Zigor Zuzenbidea ETArek amaieran”

Iaz bizi izandako esperientzia arrakastatsuaren ondoren, ekinaren 28an, Sabino Arana Fundazioak berriro bildu zituen epaile, fiskal, Zigor arloko abokatu, akademiko eta politikari seinalatu zenbait, Zigor Zuzenbideaz eta ETArek amaieraz gogoeta egiteko.



Helburua izan zen, aurrera egiten eta lan egiten segitzea formulak bilatzen, hots: Justizia, ETak armazko jokabideari utzi dionetik gertatutako agertoki berrira egokitzea eraman dezaketenak.

Horretarako, hizlari aritu ziren, **Mercedes Gallizo**, Espetxe Erakundeetako zuzendari nagusi ohia, eta **Javier Mira Benavent**, Valentziako Unibertsitateko Zigor Zuzenbideko irakasle titularra. Jardunaldian zehar **Josu Erkoreka** Eusko Jaurlaritzako Justizia sailburuak espetxe-politikak aldatzea exijitu zuen, “gehiegikeria judizial batzuk, emaitzatzat funtsezko eskubideekin errespetu gutxi erakutsi dutenak, berrorientatzeko”. **Juan Calparsoro** EAEko Auzitegi Nagusiko fiskal nagusiak esan zuen, “ikusten dituela motiboak” terrorismoari buruzko epaketak Euskal Herrian egin ahal

izateko. “Agian ETA desagertzea aukera bat da Euskadin eskumen horiek ezarri ahal izateko”, adierazi zuen.

Beste parte-hartzaileen artean honako pertsona hauek ere bazeuden: **Antonio Cuerda Riezu**, Madrileko *Rey Juan Carlos* unibertsitateko Zigor Zuzenbideko katedraduna; Iñigo Lamarka, Arartekoa; **Juan Mateo Ayala García**, Bizkaiko Probintzi Entzutegiko magistratua; **Idoia Mendia**, eusko legebiltzarkidea; **Juan Ignacio Echano**, Deustuko Unibertsitateko Zigor Zuzenbideko katedraduna; **Juan José López Ortega**, Madrileko Probintzi Entzutegiko magistratua; **Augusto Maeso**, Gipuzkoako Probintzi Entzutegiko magistratua; **Jose Ricardo De Prada**, Entzutegi Nazionaleko magistratua, zigor arloa; **Nekane San Miguel**, Bizkaiko Probintzi Entzutegiko magistratua; **Joaquín Giménez**, Auzitegi Goreneko zigor-arloko epaile magistratua; **Ramón Sáez Valcarcel**, Entzutegi Nazionaleko magistratua, zigor arloa.

4.3.- “VI. Bilboko elkarrizketak. Nazioen aberastasuna eta txirotasuna: historia, ekonomia eta erakundeak”



Bilboko elkarrizketak jardunaldien seigarren aldian, urtero bezala, gaurkotasuneko gaiaez mintzatzea xede, zenbait politikari latinoamerikar eta europar eta nazioarteko beste zenbait aditu bildu dituelarik, aurten aztertu den gaia izan da, “Nazioen aberastasuna eta txirotasuna: historia, ekonomia eta erakundeak”. Irailaren 30ean eta urriaren 1ean intelektual horiek, aztertu zituzten, besteak beste,

herrialdeen oparotasuna eta txirotasuna azaltzen dituzten anitz eta anitz arrazoiak eta, halaber, Europa eta Ozeano Bareko Aliantzaren gaia.

Irekitze-ekitaldiaren ardura pertsona hauena izan zen: **Andoni Ortuzar** EAJ-PNVren EBBko lehendakari eta PDE-EDPko lehendakariordea; **Juan M^a Atutxa** Sabino Arana Fundazioko lehendakaria; eta **Gutenberg Martínez** M. de Cervantes Unibertsitateko errektore eta Txileko Diputatu Ganberako, Txileko Alderdi Kristau Demokratiko eta ODCako mahaiburu ohia.

Ondoren mahainguru bat egin zen, “*Garatze-bidean diren nazioen oparotasuna giza eskubideei eta demokrazia parte-hartzezkoari atxikita*”, izenburuduna, zeinetan hizlari gisa honako hauek parte hartu baitzuten: **Xavier Barrón**, abokatua eta Peruko biltzarkide ohia; **Milton Henríquez**, presidentetzarako hautagaia Panamako Alderdi Popularretik; **Regis Iglesias**, Askapen Mugimendu Kristauko (Kuba) eleduna, eta **Edgardo Riveros**, Txileko *Centro, Democracia y Comunidad*’eko presidentea. Eta artezkari jardun zuen, Mexikoko kontsul **Iñaki Azuak**.

Asteartean, hilaren 1ean, 9:00etan, “VI. Bilboko Elkarrizketak” topaketa hauen bigarren jardunaldian, eta jarraipen gisa, beste mahainguru bat egin zen: “*Europa, oparotasunetik geldialdira: EBren rola krisian eta ekonomiaren susperketan*”. *Politika*

eta Ekonomia. Harreman horren irakaspenak eta berorri buruzko erabakiak". **Denis Badré** PDE-EDPren ordezkaria eta Ville-d' Avray (Frantzia) udalerriko alkateak, **Josu Ugarte Mondragón** Internacionaleko presidentek eta **Izaskun Bilbao** europarlamentariak parte hartu zuten. Eta **Gutenberg Martínez**, M. de Cervantes Unibertsitateko errektore eta Txileko Diputatu Ganberako, Txileko Alderdi Kristau Demokratiko eta ODCAko mahaiburu ohiak arteztu zuen ondorengo debatea.

Goizeko bigarren mahainguruak, zeinen izenburua *Ekonomiaren hazkundera, gizarte-desberdintasunak eta gizarte-gatazkak* izan baitzen eta **Iñaki Anasagastik** jardunda artezkari, honako hauen hitzaldiak izan zituen: **Ramón Guillermo Avelo**, abokatua eta COPEI-ko (Venezuela) buruzagia; **Antonio Carámbula** Uruguako Turismo eta Kirol ministrordea; eta **Gutenberg Martínez**.

Bukatzeko, azken mahainguruak beste gai hau hartu zuen hizpide: *"Ozeano Bareko Aliantza, integrazio-eredu berri bat Latinoamerikarentzat eta ereti berria Europarentzat"*, eta honako hauek osatu zuten: **Edgardo Riveros**, Txileko *Centro, Democracia y Comunidad*eko presidentea; **Lourdes Flores**, Peruko presidentetzarako hautagai ohia, eta **Constantino Urcuyo**, costarrikar abokatua eta politologoa. Artezkaria **Alex Arriola**, SPRIko zuzendari nagusia izan zen.



4.4.- "Paradigma-aldaketa, garapenerako nazioarteko lankidetzan. Mundu berri bat, arau berriak, aktore berriak"

Atzerri Ministerioaren Espainiar Lankidetzaren Plan Zuzentzailearen barruko jardueren artean, azaroaren 4an Sabino, Arana Fundazioak elkaraldi bat antolatu zuen garapenerako nazioarteko lankidetzaren paradigma berria aztertzeko eta hartan sakontzeko, eta horretarako, parte-hartzaileak izan ziren: garapenerako nazioarteko lankidetzan adituak, lankidetzaren agentzietako eta erakundeetako arduradunak, katedradunak, etab.

Izenburu orokortzat *"Paradigma-aldaketa, garapenerako nazioarteko lankidetzan. Mundu berri bat, arau berriak, aktore berriak"* hartuta, mintegiak hizlari izan zituen: **Dipankar Gupta**, Dipankar Gupta, Indiako intelektualik bikainenetakoa, batez ere

Indiako gizartearen egiturari eta gizarte-aldaketari buruz egin dituen azterlanengatik goretsia; **Francisca Elisabeth Méndez** Mexikoren Espainiako enbaxadorea, eta **Joxean Fernández**, Ekin Consulting-eko zuzendaria, zeinek enpresa horretatik zenbait kudeaketa-proiektu koordinatzen baititu Latinoamerikako zenbait herrialdetan, arlo hauetan: berrikuntza, gizarte-berrikuntza, zentro teknologikoen nazioartekotzea eta negozio-eredu berrien garapena Latinoamerikako zenbait herrialdetan. Orobat, jardunaldi horretan baita parte hartu zuten ere garapenerako nazioarteko lankidetzan esperientziadun beste 40 bat profesionalak.



HITZALDIAK ETA MAHAINGURUAK:

4.5.- Hitzaldia: “Kataluniako finantzak, ekonomia eta ingurune sozio-politikoak”

Joan B. Casas Kataluniako Ekonomialarien Elkargoko dekanok joan den apirilaren 11n Sabino Arana Fundazioaren gogoeta eta elkarriketarako mintzagunean parte hartu zuen, eta han azaldu zuen Kataluniako Autonomia Erkidegoak bizi duen ingurune ekonomiko eta finantzarioa, berorren gaitzetako batzuk gaur egungo finantzazio-ereduari egotzi zizkiolarik.

“Finantzazio bidegabekia da, ez baitago korrelazioan Katalunian sorrarazten den errentarekin ez aberastasunarekin. Saiatu gara finantzazio hori aldatzen, zentzuzko bitarteko guztiez saiatu ere, bai eta justifikatu dugu eta argudiatu dugu teknikoki, baina inolako aurrerapenik gabe”, esan zuen.



Kataluniako ekonomialarien dekanok nabarmendu zuen, “Kataluniako ekonomiak badituela Championsen jokatzeko gaitasuna, askotarikotasuna eta nahia, baina, hala ere, aurrekontu-mugaketak eragotzi egiten duela, ekonomia horrek beharrezko baliabideak eduki ditzan, eta ondorioz, ez jaisteko borrokatzearekin konformatu behar duela”.

4.6.- Hitzaldia: "Ulertu Eskozia eta beraren etorkizun-aukerak"



Maiatzaren 2an gurean izan genuen bisitari **David McCrone**, Edinburgoko Unibertsitateko Eraentza Institutuko zuzendarikidea eta identitate nazionalari eta nazionalismoei buruzko gaietan aditua. Eskoziar abertzaletasuna ondo ezagutzen duelarik, McCronek 2014ko irailaren 18rako ezarritako erreferendumaren ondoren gerta

litekeen Eskozia independentearen gakoak garandu zituen. Orobat, aztertu zituen, 2011n Eskoziako Alderdi Nazionalak (SNP) lortutako arrakastaren zergatiak eta prozesu horretan identitate nazionalak norainoko garrantzia izan duen.

Goizean David McCronek baita parte hartu zuen ere Sabino Arana Fundazioak eta Europar Demokraten Institutuak kultur identitateei eta politikoei buruz antolatutako mintegian, non baita mintzatu baitzen, hizlari gisa, **José Manuel Castells**, EHuko Administrazio Zuzenbideko katedraduna ere.

4.7.- Hitzaldia: “Pentsioak eta egia: zalantzazko oraina eta etorkizuna”

Emilio Olabarri, Diputatuen Kongresuko EAJ-PNVren ordezkariek, eta **Xabier Ochandiano** Eusko Jaurlaritzako Plangintzako eta Enplegu Berrikuntzako zuzendariak, joan den maiatzaren 31n Lehenengo Belaunaldiarteko Elkaraldian parte hartu zuten. Jardunaldiaren antolatzaileak izan ziren Sabino Arana Fundazioa, EGI eta Helduak.



Hitzaldian bertan eta ondoren entzuleeeekin izandako solasaldi debatean Emilio Olabarriak Pentsioen Sistemaren egoera eta haren inguruan sortzen diren arazoak azaldu zituen. Ildo horretan, finantza-jasangarritasuna ukitzen duten arazoak aipatu zituen, besteak beste: pentsiodunen kopurua gehitzea; biztanleria zahartzea; kotizatzen dutenen kopurua gutxitzea langabeziaren hazkunde itzelagatik; biztanleria aktiboa gutxitzea, lan egitera etorri ziren atzerritarrak euren jatorri-herrialdeetara itzultzeak eraginda, eta gure gazteek atzerrian bilatzea lana, hain zuzen ere, Olabarriaren ustez, “gure historiako prestatuenak direlarik”.

Orobat, arrazoiak ematean aipatu zituen, Espainiako Gobernuaren aurreikuspen baikorren sinesgarritasunik eza, goian aipatutako faktore negatiboak gairatzerakoan, eta langabeziarako aurreikuspenek 2016rako % 25erainokoa adierazten dutela.

Emilio Olabarriaren aburuz, “ezta ere ez da iragartzen jaiotze-tasaren hazkunderik, ikusita gazteek enpleguaren, etxebizitza eskuratzearen eta familiarekiko

emantzipazioaren esparruetan dituzten zailtasunak direla-eta”. Eta erantsi zuen, “abagunezko inguruabar gisa, nabarmen daiteke Baby Boom (5 edo 6 ondorengodun familiak) belaunaldiko seme-alabak hasiak direla jubilatzen eta horiek finantzatu behar dituztela halako familia-unitate batzuk non, seme-alaba 2 baino gehiagoko familiak oso-oso gutxi diren, horrek eragiten duen distortsio ekonomiko eta demografikoarekin”.

Xabier Ochandianok, bere aldetik, gazteen gaur egungo egoera zaila arintzearen Eusko Jaurlaritza abian ipintzen ari den gazte-enplegua sustatzeko neurriez hitz egin zuen. Izan ere, Xabier Ochandianoren iritziz lan-merkatuan sartzea zaila izateak eta berandu egiteak haien bizi-prozesuak atzeratzen ditu, hala nola, emantzipazioa, seme-alabak edukitzea, etab. Eta horrek behartzen du, are eta zaharragora arte lan egin beharra, oraingo eta etorkizuneko pentsioen sisteman eragina duena ”.

“Enplegua Sustatzeko 2013-2016 Programa” egin da, beharrezko eta premiazko ikusten delako ekintza zuzena, gardena eta neurgarria, hau da, erantzuna eman behar zaiola Euskadi ekonomia arloan bizitzen ari den egoera latzaren eta hori enplegura eramatearen ikuspuntutik. Programak, 65 ekimenetan garaturik, 6 programa operatibo ditu oinarri, enpleguaren erronka nagusiei ekitea xede, eta dira: enpresa txikiak eta ertainak eta autonomoak finantzatzea; gazte-enplegua sustatzea; ekintzailatza sustatzea; enplegurako prestakuntza; berritze planak, eta instituzioarteko akordiora irekita dagoen elkartasun-funts bat.

Ochandianok ekin egin zuen esateko, plan horretan, gazteen laneratzea dela helbururik behinena, eta horretarako, bost jardun-ardatz haurtu dira oinarri, hots: “gazte-ekintzailatza bultzatzea; prestakuntza duala; lehenengo lan-esperientzia, gazte talentua eta lanerako lehen urrats aukera, Ekonomia eta Enplegua Sustatzeko Institutuzioarteko Akordioaren barruan ”.

“Eragin zuzeneko jardun horien osagarri gisa —esan zuen—, ekonomia bizkortzeko estrategia global bat, epe luzera enplegua sortzea erraztuko duena”.

4.8.- “Historiari buruzko hitzaldi sorta”

Euskal Abertzaletasunaren Agiritegiaren XX. urteurrena



Bere XX. urteurrena ospatzeko, Euskal Abertzaletasunaren Agiritegiak zenbait ekitaldi antolatu zituen ekainean zehar.

Horrenbestez, hilaren 6an, *Papeles de Salamanca* deritzenak aurkeztu zituen eta beraiek kontsultatu nahi dituzten ikerlarien eskura ipini zituen; paper horiek dira, Salamancako Memoria Historikoaren Dokumentazio Zentroak EAJ-PNVri itzulitako agiriak, zeintzuk baitira Euzko Alderdi Jeltzaleak berak, gehienbat Errepublikaren sasoian eta

Gerra Zibilean, sortutakoak eta gero gatazka hartan bertan ez ezik, ondorengo diktadura frankistan ere konfiskatu zizkietenak.

Estatuak itzultako dokumentuak (15.000tik gora, 232 karpetatan banatuta) 1903 eta 1937ko maiatza bitartean sortu ziren, baina agiritzarik ugariena joan den mendeko 30eko hamarkadakoa da.

Euzko Alderdi Jeltzaleak bere Batzar Nazionalak antolatzeko sortutako dokumentazioa da, bai eta EAJren Aldundiak 1906 eta 1908 bitartean sortutakoak, edo EAJ-PNVren Euzkadi Buru Batzarrak 1911n gauzatutako lehenengo jarduerak jasotzen dira, eta, batez ere, Bizkai Buru Batzarraren artxibategiari dagokiona, bai Euskal Idazkari Nagusiarekin eta hartara sortu ziren batzordeekin, hala nola: Arabaren eta Nafarroaren aldeko propagandarakoa, Aberriaren Euki Eguna, presoen aldekoa, hauteskunde-batzordeak; bai halaber Aberri Egunak antolatzeko.

Hilaren 14an, mintegi bat egin zen Artxibategi, Liburutegi eta Dokumentazio Zentroetako profesionalen Euskal Elkartearekin (**ALDEE**) elkarlanean, eta haren gaia izan zen “Artxibategietako Informazioaren hedapena”.



Artxibategietako berrogeita hamarretik gora profesionalak (udal, probintzi- eta aldundi-artxibategietakoak, nahiz unibertsitate- eta eliza-artxibategietakoak, etab.) egon ziren elkaraldi horretan, non hizlariak, euren lanbideko goi mailako adituak izaki, lanean izan dituzten lanbide-bizipenez eta euren lan hori garatzeko erabili ohi dituzten tresnez mintzatu ziren.

Besteak beste, aipatzekoak dira, **Jone Garmendia** donostiarra, Erresuma Batuko Artxibategi Nazionalako Katalogazio burua, edo, **Julio Cerdá** artxibo-zaintzan aditua, zeini berriki eman baitiote VII. SEDIC Nazioarteko Saria, Informazio Kudeaketarako saiatze-ekimen onenagatik.

Euskal Abertzaletasunaren Agiritegiak mintegi horretara egingo duen ekarpena, Agiritegiaren funtsetara sartzeko on-line bidezko sarbide-sistema abian ipintzea izango da, horretara erabiltzaileek funts horiek ordenagailu pertsonaletik kontsultatzerik izan dezaten.



Eta ekainaren, 13an eta 19an, “Zorigaiztoko urteurrenak: Historiarako eta gogoan izaten laguntzeko agiriak” izenburu orokorraren pean, 13an eta 19an hitzaldi bi eskaini ziren, hurrenez hurren: **Xabier Irujo** Historian eta Filosofian doktoreak, “1937-4-24, Gernika hil zen eguna” ekarri zuelarik gogora, eta bigarrena, **José Ignacio Salazar Arechalde** historialariak, zeinek beste “zorigaiztoko” urteurren batekin batera, bere azken liburua aurkeztu baitzuen “1937. Bilbao conquistada” (1937. Bilbo oinperatua)

4.9.- Elkarraldia: “Ekintzailatza eta gazte-emantzipazioa giza garapenaz denaz bezainbatean”

Sektore publikoko eta pribatuko aditu zenbaitek, urriaren 14, 15 eta 16an Sabino Arana Fundazioaren GOAZ museumen, "Ekintzailatza eta gazte-emantzipazioa giza garapenaz denaz bezainbatean" hartu zuten debategai, Gaztepolis gazte-erakundearekin elkarlanean antolatutako jardunaldi batzuetan.



Hasierako jardunaldian, **Koldo Saratxaga** NER (Harremanetarako Estilo Berria) taldeko arduradunak eskainitako solasaldiaren ondoren mahainguru bat egin zen **Xabier Uribe-Etxebarria** Sherpa aholkuzko urgazle birtualaren sortzailearekin **Carlos Polo** NTS Mobile y Doocumentsen sortzailearekin.

Asteartean, **Juan María Aburto** Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuak "euskal eredua" azaldu zuen, eta gero mahainguru batean, **Koikili Lertsundik** (Itzarri Consulting) **Itsaso Anduezak** (Euskadiko Gazte Kontseilua) eta **taZEBaez Junior** **empresak** (13 ekintzailek osatutako lan-talde bat eta Mondragon Unibertsitatean eratua) hezkuntza, berrikuntza eta gazteria gaiak hitz egin zuten.



Asteazkeneko jardunaldian mintzagunean **Imanol Pradales** Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomi Sustapeneko foru-diputatuak parte hartu zuen. Geroko mahainguruan **Gorka Martínez** BBKren Gizarte Ekintzako zuzendariak, **Nora Sarasola** Bilbao Ekintzako zuzendariak eta **Novia Salcedo** kultur fundazioaren zenbait ordezkariak hitz egin zuten, tokiko adibide praktikoak ere ekarri ziotuztelarik.



Elkarraldi horietan aztertu ziren, arduradunen hitzetan: gazteei “ekonomia global eta eten gabe aldatzen ari den batean” eskaintzen zaizkien aukera berriak

eta prestakuntzak eta ekintzailetzaren kulturak oraingo arazo ekonomikoen egoera gaitzakerakoan duten garrantzia".

4.10.- Hitzaldia: "Klima-aldaketa: elkarren aurka ote lehiakortasuna eta ingurumena?"

Zientzialariek, oro har, gero eta argiago —% 95ean— dute gizakia bera dela klima-aldaketaren eragile nagusia, eta ohartarazten dute ezen, emisioek orain artean eragindako kalteek mende askoan iraungo dutela, baldin eta gobernuak kontzientzia hartzen ez badute berotze hori benetakoa eta oso larria dela.

1983ko abuztuaren 26ko uholdeen ondorioz Euskal Herrian hamarnaka hildako eta bestelako biktima ugari eta 1.200 milioi euroko galera materialak gertatu zirelarik, hondamendi-eremu izendatu zituzten ehunetik gora euskal udalerri; horrenbestez, bada, gertaera tragiko haien 30. urteurrenean Sabino Arana Fundazioak hitzaldi-saio bat antolatu du arloko aditu birekin, aztertzeko ea posible den bateragarri egitea lehiakortasuna eta ingurumena: **José Ignacio Hormaeche**, Energiaren Klusterreko zuzendari gerentea, eta **Ibon Galarraga**, Ekonomian doktorea. Irakasle ikertzailea Euskal Klima Aldaketarako BC3 Zentroan.

José Ignacio Hormaecheren iritziz, "Europar azken hamarkadan egin diren politika energetikoei ingurumenaren jasagarritasunaren aldeko irizpideak hobetsi dituzte, lehentasuna eman diete".



Ekonomia abagune
ona bizitzen ari
izanak -2008ra arte
bai behintzat-
"lagundu egin du,
aldi berean,
energiaren gaineko
erabakien alderdi
ekonomikoei leba
kentzen", adierazi
zuen.

**José Ignacio
Hormaeche**

Energiaren Klusterreko zuzendari gerentearen aburuz, "politika energetikoei dena delako lurraldeko herritarrei eta enpresei bermatu behar diete, energia nahikoa izan dezaten, bai kopuruz, bai kalitatez eta bai denboraz, eta kostu lehiakorarekin eta jasagarria izanda ingurumenarentzat".

Orobat, proposatu zuen, politika energetikoak ebaluatzerakoan beste irizpide bat eranstea, hau da, politika energetiko horiek lurraldeetara ekarri dezaketen garapen industrial; adibidez, Eusko Jaurlaritzak 2020rako ezarritako Estrategia Energetikoaren (3E2020) kasua.

Euskal Klima Aldaketarako BC3 Zentroko irakasle ikertzaile **Ibon Galarragak**, bestalde, uste du ezen, "erregio batzuetako errealitatea oso bestelakoa izan litekeela, bereziki jarduera sektore batzuetan, nahiz eta, klima-aldaketaren arloan ezarri den

erregulazioak eragin dien enpresen lehiakortasunaz denaz bezainbatean, Europa mailan ondorio garrantzitsurik egiaztatu ez den”. BC3ko ikertzaile horrek galdera bat ere badu kolkoan, hots: “ea klima-aldaketaaren aurka borrokatzeari uzteko moduan ote gauden”.

5.- GAZTERIA

5.1.- “Balia itzazu, zeu baliogabetu barik. Internet eta gizarte-sareak”



Azaroaren 19an (euskaraz) eta 20an (gaztelaniaz) Sabino Arana Fundazioak Euskaltekin elkarlanean antolatuta, “Balia itzazu, zeu baliogabetu barik. Internet eta gizarte-sareak” izenburuko IV. jardunaldiak egin ziren Euskalduna jauregian. Hilaren 19an **Estefanía Jiménez**, EHUKo Ikus-entzunezko Komunikazioan doktore eta Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko irakaslea. EU Kids Online lantaldeko kideak, **Gotzon Arzelus** Batura Mobile Solutions-eko zuzendari-kudeatzaileak eta **Ugaitz Zabala** Leioako Udaleko euskara teknikariak aholkuak eman eta kontsultak erantzun zizkieten 12 eta 16 urte bitarteko ikasleei, bai sarean aurki daitezkeen alderdi onei eta aukerei buruz, baina baita arriskugarriak izan daitezkeen zenbait konturen gainean ere, hala nola; ciberbullying, pornografia, sexting, ezezagunekin geratzea, etab.

DBHko, Batxilergoko eta LHko ikasle haiek, Begoñazpi (Bilbo), San Félix Ikastetxea (Ortuella), Ama Mesedetakoa Ikastetxea (Leioa), Getxoko Andra Mari Eskola, Botikazahar BHI, Urola Azkoitia-Azpeitia BHI Ikastolak, Iurretako GLHB Institutua y Leioako Gaztelueta Ikastetxea ikastetxeetatik etorritakoak ziren.

Eta azaroaren 21ean itxi ziren IV. jardunaldi horiek, han zirela honako ikastetxe hauetako 200 bat ikasle, guraso eta hezitzaile, hots: *Esclavas de la Santísima Eucaristía-Jaunaren Ama ikastetxea*, La Salle (Sestao), Emilio Campuzano (Atxuri Bilbo), BHI (Muskiz), El Carmen (Portugalete) eta Askartza Claret (Leioa). Guztiek entzun zituzten adi honako aditu hauen azalpenak eta aholkuak: **Miguel Ángel Casado**, Kazetaritzan doktorea eta EHUKo Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko irakaslea eta EU Kids Online lantaldeko kidea; **Gotzon Arzellus** Batura Mobile Solutions-eko zuzendari-kudeatzailea, eta **Iker Merodio**, Kazetaritzan doktore eta IKT gaietan aditua.

5.2.- Jardunaldiak: “Gazteria eta Euskal Abertzaletasuna”

Sabino Arana Fundazioak eta Gaztepolis gazte-erakundeak **“Gazteria eta Euskal Abertzaletasuna”** izenburu orokorraren pean antolatutako jardueretan gogoetagai hartu ziren euskal abertzaletasuneko gazte-erakundeen historiarekin ets orainarekin lotutako zenbait gai, haien errebindikazioak, euskal instituzioak etab.



Elkarraldi horietako lehenengoa apirilaren 19an egin zen. Hizlari nagusia izan zen, **Nicolás Ruiz Descamps** Historian doktorea EHUtik, *“Historia de las Organizaciones Juveniles del Nacionalismo Vasco (1893-1923)”* (Euskal Abertzaletasuneko Gazte Erakundearen Historia) liburuaren egilea. Descampsek erakunde haiek hasierako garaietan betetako eginkizuna berreraiki zuen, hain zuzen ere eginkizun bat non kultur jarduerak oso

garrantzi handia izan baitzuen

Bigarren elkarraldian, apirilaren 26an, , **Luis de Guezala** Historian doktoreak; **Maitane Leizaola**, Bizkaiko Foru Aldundiko Kirola eta Gazteriako zuzendari nagusia, eta **Koldo Bilbao**, Bizkaiko EGiko arduraduna mintzatu ziren; erakunde horien oraina aztertu zuten eta gako batzuk eman zituzten etorkizunari aurre egiteko.



Azkenik, **Santiago Larrazabal**, Eusko Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariak itxi zituen jardunaldiak; haren hitzaldiaren izenburua, *“Euskal nazioa erakundeetatik eraikitzen”*.

5.4.- Tailer didaktikoak: “Gazteak, ipuin egarri...”



GOAZ museum – Euskal Abertzaletasunaren Museoak eskola-umeentzat antolatzen dituen tailerretako bat egin zen joan den maiatzaren 28an. **Artxandape Ikastolako** Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailetakoko ehunetik gora ikaslek hitzordua izan zuten Museoaren egoitzan **Antton Irusta**, filologo, ipuin-kontalari eta idazlearekin, zeinek ipuinen eta kontakizunen munduan sartzerari animatu baitzituen.

Txikiei ematen zaizkien tailer horien bitartez ulermenaren eta adierazmenaren garapena bilatu nahi da; horretarako, ahozko eta idatzizko ereduak eta jatorrizko kontakizunen osaera aztertzen dira, eta dena helburu argi batekin:



ikasleak ipuinak idaztera nahiz eraldatzera, planifikatzera, imajinatzera eta balioestera bideratzea.

Irusta espezialista da irakaskuntzan halako tailerretan lan egiten; nahi izaten du, neskato-mutikoek jakinmina eta estimua izan ditzaten ipuin tradizionalari eta literatur sorkuntzari buruz, euskal kultura eta bizi garen gizartea hobeto ezagutzeko bitartekoak direnez gero.

6.- EUSKARA

6.1.- Euskararen egoera Ezkerraldean, Meatzaldean eta Enkarterrian



Irakaskuntza arloko profesional eta aditu zenbaitek, euskarak zenbait esparrutan (gizarte-bizitza, administrazioa, aisia etab.) bizi duen egoera eta, era berean, haren garapena eta aurrera egiten segi dezan abiatu beharreko ekimenak aztertu zituzten Sabino Arana Fundazioak eta Bideko Argia kultur elkarteak

antolatutako elkarraldi batean, eta aipatu gogoetaldian antzeman zuten, euskara gero eta gehiago suspertzen ari dela Ezkerraldean, Meatzaldean eta Enkarterrian.

Jardunaldi horretan txosten bana aurkeztu zuten, **Gotzon Lobera** Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko zuzendariak (Eusko Jaurlaritza), **Olatz Altuna** Soziolinguistika Klusterreko kideak, **Jon Aizpurua** Hizkuntza Politika Sailburuordetzako Plangintza eta Azterlanetako zerbitzu-buruak eta **Patxi Alberdi** Bizkaiko Foru Aldundiko Hizkuntza Gizarteratzeko Ataleko buruak

Horrenbestez, bada, Jon Aizpurua zenbait datu eman zituen *“Erroldako datuetan oinarrituta, Euskarak Ezkerraldean izan duen bilakaera”*ren berri emateko; Olatz Altunak eskaini zuen hitzaldiaren ardatza izan zen, *“Euskararen kaleko erabilpena Ezkerraldean”*; Patxi Alberdik *“Bizkaiko Foru Aldundiak euskara Ezkerraldean sustatzeko dituen lehentasuneko jardun-esparruak”* hartu zituen mintzagai; eta Gotzon Loberak *“Bilakaeraz, oraingo egoeraz eta Herri Administrazioak Ezkerraldean etorkizunerako dituen erronkez”* gaiari berba egin zion.

Datuek hala diote. Euskara Ezkerraldean biziberritze-prozesu garrantzitsu bat bizitzen ari da, hamarkadatan zehar alderantzizkoa bizi izan duen arren, nahiz eta, ustez bestela, gauza arraroa edo gutxi ezaguna izan ez. Izan ere, Jose Antonio Uriarte aita frantziskotar eta euskalkien ikertzaileak 1864an egindako azterlan batek jakin eragin

zuen ezen, Ezkerraldeko biztanlerik gehienak euskaraz mintzatzen zirela eta gaztelania gazte gutxi batzuek bakarrik erabiltzen zutela komunikatzeko. Gero, jasan zituen jazarpenek eta debekuek haren atzerakada areagotu zuten.

Orain, herritarren eta instituzioen nahimenari eta ahaleginari esker, euskara, galdutako eremua berreskuratzen ari da. Biziberritze hori hizkuntzaren beraren biziraupena bermatzen ari da; hain zuzen ere, horixe izan zen mintegi honen antolatzaileek espero zutena, hots, etorkizunerako joera hortik joatea.

Goizeko debatea esparru horren zenbait alderditan ardatsu zen, besteak beste: nondik gatoz?, zein da euskaren gaur egungo egoera?, zeintzuk dira inguru horretan hizkuntza normalizatzeko egiten ari diren ahaleginak? Zeintzuk programa beharko lirateke hura indartzeko?

6.2.- “Euskara eta Kultura”

6.2.1.- “Euskal kulturgintza XXI. mendean: Euskararen desafioak”



Sabino Arana Fundazioak, Bizkaiko Foru Aldundiarekin lankidetzan, elkarraldi bi antolatu zituen, “Euskal kulturgintza XXI. mendean” izenburupean

hezkuntzaren esparruko zenbait profesional eta aditurekin; helburua, euskarak eta euskal kulturak etorkizunerako dituzten erronkei buruz gogoeta egitea

Lehenengo jardunaldia azaroaren 13an egin zen eta bertan 40 bat profesionalek parte zuten.

Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura diputatu **Miren Josune Ariztondok** zera adierazi zuen “Bizkaiko Foru Aldundiak euskara bultzatzen eta berori gizartearen esparru guztietan zehar-lerroka ezartzen lan egiten du”. Kultura diputatuak azpimarratu zuen “zeregin horretan foru-erakundearen helburuak direla: oroipen historikoa berreskuratzea, abangoardia babestuz eta kultur merkatuaren eta botere publikoaren arteko harremanak sustatuz; euskaren erabilpena sustatzea bai kultur sorkuntzaren esparruan, bai kirolean, bai gazteria baitan eta bai euskararen ezarrera gizarteak duen ezagutzaren mailan ez dagoen beste esparru batzuetan, hala nola aisia”.

“Halako politikak, gizarte elebiduna sustatu nahi dutenak, garatu ahal izateko, funtsezkoak dira erakunde publikoen eta sozialetan arteko elkarbizketa eta elkarlana”, azpimarratu zuen.

Juan Ramón Madariaga Nontzeberri.com orriko arduradunak, bere aldetik, Nontzeberri.com orriaren esperientzia azaldu zuen, eta adibidetzat ipini zuen, sortuz geroztik garatu den eginkizuna. Madariagak adierazi zuen ezen, hura sortu zenetik “web orriaren helburua dela hizkuntza bultzatzea eta munduko beste edozein hizkuntzaren mailan ipintzea teknologia berriak erabiliz”.

Eta **Nerea Mujika** Gerediaga Elkartekoak, euskarazko ekoizpena sustatzen eta bultzatzen aipatu elkarteak Durangoko Azokan garatzen duen eginkizuna azaldu zuen.

6.2.2.- “Euskal kulturgintza XXI. mendean: Kulturaren erronkak”

Sabino Arana Fundazioak eta Bizkaiko Foru Aldundiak antolatutako “Euskal Kulturgintza XXI. Mendean” izenburu orokorreko jardunaldien barruan, azaroaren 27an egin zen bigarren elkarraldia, oraingoan gogoeta egiteko euskal kulturak etorkizunari begira dituen erronkez.

Azaroaren 13an bezala, 40 bat profesionalak eta adituk euren proposamenak aurkeztu zituzten eta gero zabal debatitu gaiari buruz.

Javier Riaño margolariak eta **Olatz Saitua** sopranoak, zeintzuek hizlari gisa parte hartu baitzuten, bereziki ekin egin zuten, azpimarratzeko “beken programek eta instituzioen laguntzek duten garrantzia, ageriratzen ari diren sortzaile gazte askoren gaitasunak aprobetxatzeko”.



Bestalde, **Josune Ariztondo** Bizkaiko Kultura diputatuak adierazi zuen, “kulturari bultzada emateko, behar dela herri-administrazioen ekintza positiboa. Hori argi dugu. Eta baita ere, berdin dugu argi, beharrezkoa dela zentzu praktikoarekin lan egitea eta, gainera, kultur esparruaren berezko erremintetara ez ezik, jarduera ekonomikoa sorraraztearekin lotuago dauden beste batzuetara ere jotzea”.

Ildo horretan, Kulturako foru-diputatuaren iritziz, helburua zenbait erreminta bultzatzea da, hala nola: kultur azpiegiturak, hau da, elkartegi espezializatuak nahiz enpresa-haztegiak; jarduera osatzen duten arloetan klusterrak sortzeko sostengua; plataformak sortzen laguntzea, gure kultur sorkuntzak hedatzeko eta nazioartean zabaltzeko, eta kultur arloko mezenasgo-irizpideak eguneratzea.

“Laburbilduta, kultur sorkuntza eta hedapena susperrarazten ahalegintzen gara. Baita ondarea artatzen eta dagokion balioa agerian ipintzen ere. Eta hala ere, badakigu ondo gure apustuak izan behar duela halako industriak sendotzearen, geure kultur produktuen eta kultur sorkuntzaren aldekoa”, adierazi zuen.

7.- ABERTZALETASUNAREN AGIRITEGI HISTORIKOA

7.1.- Artxiboko dokumentazioa

2013an, jarduera nagusiaz batera, hau da, urtero Agiritegian, gehien bat norbanakoen dohaintzaz urtero sartzen diren dokumentazio-funts berriak erregistratu, instalatu eta deskribatzeaz batera, orain, joan den ekitaldian hasitako gordailu-berrikuste orokorrarekin jarraitu dugu.

Inbentarioen eta datu-baseen bitartez, instalazio-unitateak eta haien edukiak egiaztatzen jarraitzen dugu. Aldi berean, dauden deskripzioetan sakontzen da eta okerrak zuzentzen eta, dokumentu errepikatuak edo balio bako kopiak garbitu ondoren, karpetak birbanatzen.

Aurten, adibidez, Agiritegian sartu den agiritza berriak 20 metro lineal behar izan ditu (horietako asko, berrerabiliz, lehen esan den bezala) eta agirien deskribapen eta guztiko datu-baseetan informatizatutako erregistroak dagoeneko **1.500**etik gora fitxa ditu. Ikus-entzunezko materialen datu-basean **460** dokumentu erregistratu dira.

Funts sartu berrien artean, bereziki aipatu behar Euzko Alderdi Jeltzalearen dokumentazioa, gerran konfiskatutakoa, hainbat urtean Salamancan atxikita egon ondoren duela gutxi itzuli dutena.

Agiritegia kudeatzeko “*Albalá*” programari dagokionez, eta gure Artxiboaren datu basean (OPAC) jendearentzat Interneten doako sarbidea irekitzeari dagokienez, joan den ekainaren 14an ipini zen ikertzaileen eskura.

Egun hartan jardunaldi profesional bat antolatu eta egin zen, artxiboetan dauden hedapen-zereginei buruzkoa, hain zuzen ere, guk Internetera irtetea jendaurrean eta ofizialki inauguratzeko.

Harrezkero, Euskal Abertzaletasunaren Agiritegiaren agiri-funtsak ezagutarazteko eta bistaratzeko balio duen tresna berri hori ezagutarazi zaie bai zentroko ikertzaile erabiltzaileei eta bai zenbait bitartekoz informazioa eskatzen (kontsultak) dutenei.

7.2.- Biblioteka-funtsak

Abertzaletasunaren Agiritegiaren Bibliotekan 2013/12/31ra bitartean guztira zenbatu diren monografiak 41.366 liburu ki dira. Zehazki, 2013an beste 894 obra erregistratu dira.

7.3.- “Uzturre” hemeroteka

2013an, urtean zehar jasotako aldizkako agerkarien aleak erregistratzen eta katalogatzen jarraitu da. Beste **137** izenburu sartu dira. “Uzturre” hemerotekaren gordailuak 500etik gora metro linealeko edukiera du, eta orain arte **6.716** izenburu desberdin ditu, guztien artean **171.500**etik gora ale direlarik.

Bestalde, “*Vaciado*” datu-basean (hainbat agerkaritan —*Euzkadi, Alderdi, Hermes, Deia*, etab.— ateratako artikuluko informazio historikodunak) dagoeneko **45.027** erregistro daude.

7.4.- Prestakuntzako Programa

Jarduera akademikoaz batera ikasleen prestakuntzan lagunduko duten praktikak sustatzeko, Euskal Herriko Unibertsitatearekin (UPV-EHU) —Filosofia eta Letren Fakultatea (Historia)— sinatutako lankidetzak-hitzarmenari atxikita, 2013an bost ikaslek parte hartu dute programa horretan; zeregin hori izan da zenbait agiri-funts digitalizatzea, erregistratzea eta deskribatzea, bai halaber, Euzkadi egunkariaren orrietako informazioa, euskal abertzaletasunaren egitura politikoari eta sozialari buruz argitaraturiko erreferentzia guztiena, jasotzea eta gero hori datu-base informatizatu batera iraultzea.

7.5.- Kontsultak - aholkularitza historiko-dokumentala, lankidetzak, jardunaldietan parte hartzea, kontrol editoriala

2013an Euskal Abertzaletasunaren Agiritegian **323** informazio-eskari jaso dira, iaz baino 38 gehiago.

Kontsultarik gehienak izaten dira gerrari, erbestaldiari edo norbanakoei (gudariak, presoak, galduak etab.) buruz, eta egin izan dituzte bai senideek eta bai zenbait instituziok nahiz hedabidek, datu bila, ikerketa-lanetarako, efemerideetarako etab.

1992ko urritik hona zenbatuta, jasotako kontsultak **4.518** izan dira.

Bestalde, gure historialariek ere zenbait hedabidetan eta jardunalditan parte hartu izan dute gure historia oraintsukoarekin zerikusia duten zenbait alderdi jorratuz: gerra Euskadin, ikurrina, Agiritegia eta artxiboak ezagutaraztea etab.

Kontrol editorialari dagokionez, aholkularitza eman da honako argitalpen hauetan: “1931, *“Bilbao conquistada”*, José Ignacio Salazar Arechalde egile; *“Patria vasca en Argentina. Un siglo de nacionalismo vasco”*, Magdalena Mignaburu egile; *“Niños vascos evacuados a Gran Bretaña (1937-1940)”*, Gregorio Arrien egile; eta “Mungiako Euzko Alderdi Jeltzalearen historia (1892-1936)”, Iñaki Larrinaga egile; horrezaz gain, asteroko kolaborazioa koordinatu da Deian, *“Historias de los vascos”* sailean.

7.6.- Partikularren dohaintzak

Artxiboko dokumentazioa dohaintzaz eman dutenen kopurua, 2013ko abenduaren 31 bitartean, 1.385 emailekoa da. Urte horretan **57** pertsona izan dira Abertzaletasunaren Agiritegi Historikoari lagundu diotenak dohaintzak emanez; horietarik **33**, dohaintzagile berriak.

7.7.- Ikertzaileak

2013an 68 ikertzailek kontsultatu dituzte aretoan bertan gure agiri-funtsak.

8.- EUSKAL ABERTZALETASUNAREN MUSEOA

8.1.- URTEKO BALANTZEA

Joan den ekitaldian, 2013an, GOAZ MUSEUM - Sabino Arana Fundazioaren Euskal Abertzaletasunaren Museoak bere jardunaren zatirik handiena argazki-funtsa katalogatzen eman du, bai eta dohaintza berrien erregistroa eta inbentarioa egiten eta, ondoren, katalogatzen.

Orobat, lan egiten jarraitu da hainbat funts antolatzen, berorien inbentarioa egiten eta katalogatzen; honako hauek:

- Ehungintza-funtsak: gure erakundera aurten iritsi diren eta dagoeneko gure Bilboko gordailuetan dauden eskuraketak aztertzea, berorien inbentarioa egitea eta katalogatzea.
- Argazki-funtsa: dauzkagun irudien erregistroa eta katalogazioa egin da, baita bakoitzari "Sabino Arana Fundazioa" zigilua irarri ere, aurten bildumaratutako 200etik gora irudiri, eta aurreko urteetan, 1.200 baino gehiagori:
 - Dohaintza partikularretatik etorri diren funtsetako irudiak erregistratu, katalogatu eta digitalizatu, bai halaber zigilua irarri.
 - Erregistraturiko irudien deskripzio fisikoa eta kontrastezko tratamendua.
 - Identifikatzaileen inbentarioa, artapen-egoera, kopien zenbakiak, etab.
 - Irudiak indexatu bakoitzari dagokion testu-fitxan.
 - Argazki-albumetan instalatu dira, tamainaren, artapen-egoeraren eta beste irizpide batzuen araberrako euskarri egokietan, ph neutroko tamaina desberdinetako gutun-azaletan ipinita, dagokion irudiari egokitua horietako bakoitza.

Atal honetan zeregin garrantzitsua egin dute praktiketan dauden EHUko Arte Ederren Fakultateko ikasleek, zenbait funtsetako irudiak digitalizatu baitituzte, bai halaber haien deskribapen teknikoa eta tratamendua egin.

Eginkizun horretan 2014an EHUko Arte Ederretako Fakultateko, Filosofia eta Letren Fakultateko edota Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko ikasle praktiketakoak jardungo dute, eta gainera, beraiek arduratuko dira horma-irudien funtsa antolatzeaz, argazkiak egiteaz eta deskribapen teknikoa egiteaz.

- Eranskailuen bilduma.- Jaso diren berriak katalogatzen jarraitu da.
- Horma-irudien bilduma.- Eranskailuen bildumarekin egin den bezala, material jaso berrien inbentarioa egiten jarraitu da: idazpen berriak egin dira eta argazki digitalaren bitartez erregistratu.
- Bestalde, 500etik gora material-idazpen erregistratu eta instalatu ditugu, dekorazio-arteak, ehungintzakoak, armategi arlokoak eta beste arlo batzuetakoak.

Lehendik deskribatutako eta inbentarioa egindako funtsei dagokienez, esan behar da ze, joan den 2013ko ekitaldian zehar GOAZ MUSEUM — Euskal Abertzaletasunaren Museoak ia 300 kontsultari erantzun diela.

Gaur egun, 2013an jasotako dohaintza garrantzitsuen inbentarioa egiten dihardugu, bai eta dagozkien euskarrietan instalatzen. Ildo horretan, bereziki aipatzekoak dira funtsetarako berreskuratu diren materialak: argazkigintza, ehungintza, dekorazio-arteak, arte grafikoak, pinakoteka etab.

Aldi baterako erakusketei dagokienez, gure parte hartzea izan da, gai desberdinetako zenbait erakusketarako ehundik gora pieza lagatzea instituzio bati baino gehiagori, Bilboko Arte Eder Museoari, besteak beste.

Hala eta guztiz ere, 2013ko eskaintza didaktikoa, joan den maiatzean egindako tailerra abian ipintzearekin gauzatu da. Tailerraren izenburua, *“Gazteak, ipuin egarri...”*, eta Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailetako ikasleei zuzenduta egon zen, Antton Irusta idazle eta ipuin-kontalariak eman zuelarik.

8.2.- Kontsultak, lankidetzak

GOAZ MUSEUM — Euskal Abertzaletasunaren Museoak 2013 osoan 300 kontsulta baino gehiago jaso ditu; horrezaz gain, 600etik gora irudi ere hornitu dizkie bai norbanakoei, bai ikertzaileei, nahiz hedabide, ekoiztetxe eta erakunde zenbaiti.

Orobat, ikertzaileen aretoan hamabi bat azterlari zerbitzatu ditugu, han argazki-funtsak zein dekorazio-arteak kontsultatu ahal izan dituztelarik.

8.3.- Tailer didaktikoak

“Ipuin tradizionalek hezkuntzarako duten balioa”

GOAZ museum — Euskal Abertzaletasunaren Museoak antolatuta, Artxandape Ikastolako Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailetako ehunetik gora ikaslek parte hartu zuten, Museoaren egoitzan bertan, **Antton Irusta** filologo, ipuin-kontalari eta idazleak eman zuen *“Gazteak, ipuin egarri...”* tailerrean.

Txikiei ematen zaizkien tailer horien bitartez egin nahi dena izan da, ulermenaren eta adierazmenaren garapena bilatu; horretarako, ahozko eta idatzizko ereduak eta jatorrizko kontakizunen osaera aztertu ziren, eta dena helburu argi batekin: ikasleak ipuinak idaztera nahiz eraldatzera, planifikatzera, imajinatzera eta balioestera bideratzea.

Irusta aditua da irakaskuntzan horrelako tailerrez lan egiten, eta berorien bidez nahi izaten du, umeei ipuin tradizionalarekiko jakin-mina eta estimua senti ditzaten, bai halaber literatur sorkuntzarekiko, ipuinak-eta euskal kultura eta bizi garen gizarte hau ezagutzeko bitartekoetako batzuk direnez gero; hau da, erakargarri senti dezatela testu eta ipuin tradizionalak irakurtzea, baita beraiek ere ipuinak sortzea, banaka nahiz taldeka.

8.4.- Aldi baterako erakusketak eta maileguak

Atal honi dagokionez, 40tik gora gauzaki edo material laga edo mailegatu dira honako erakusketa hauetarako:

- **“Bermiotarrak: Antón Ormaza Unamunoren sasoia. 1922-2010”**, Bizkaiko Foru Aldundiak antolatua.
- **“Eresoinka”**, Eusko Jaurlaritzak antolatua.
- **“Usansoloko Batzokiaren Mendeurrena (100 años)”**, EAJ/PNVren Usansoloko Uri Buru Batzarrak antolatua
- **“ Nunca más! Imágenes de guerra”**, zein Eskoriatzan egin baitzen
- **“ 30 años de las inundaciones en Sodupe”** (Sodupeko uholdeak duela 30 urte) EAJ / PNVren Arangureneko Uri Buru Batzarrak antolatua

8.5.- Dohaintza partikularrak

Berrogeitik gora norbanakok eta erakundek egindako dohaintzen emaitza gisa, GOAZ MUSEUM – Euskal Abertzaletasunaren Museoan 2013an 250 pieza baino gehiago jaso dira, 200etik gora irudi, horietako asko argitaragabeak, eta ia 1.000 horma-irudi desberdin.

9.- SABINO ARANA SARIEN KULTUR EKITALDIA



2012ko Sabino Arana Sariak

Sabino Arana Fundazioak joan den urtarrilaren 27an urtero ematen dituen sarien XXIV. aldia ospatu zuen. Sei izan ziren oraingoan goretsitako pertsonak eta erakundeak. Zehazki, dira **Bart de Wever** politikari flandestarra eta *NV-A Flandesko Aliantza Berria* ko presidentea, **Euskal Herriko Txistulari Elkarte**a, **Idom** enpresa, **Gorabide** desgaitasun intelektuala duten pertsonen aldeko Bizkaiko elkarte, **Mari Puri Herrero** margolari eta grabatzailea, eta **euskal emakumeen olinpismoa**..

Ekitaldia Bilboko Arriaga antzokian ospatu zelarik, hasieran Sabino Arana Fundazioko lehendakari **Juan M^a Atutxak** adierazi zuen ezen, Euskal Herriak ere protagonista izan nahi duela "Europa horren etorkizunean", eta izan nahi duela "estaturik gabeko beste nazio batzuekin batera, hala nola Flandes". Gurea bezalako nazioak, euren ahotsa ere entzun dadila nahi duten nazioak, hain zuzen ere ahots bat, beraien herritarren adierazpide demokratikoa besterik ez dena", erantsi zuen.

Adierazi zuen bezala, iazkoan panorama "gogorra eta zaila" izan bazen ere, handik hamabi hilabetera "panoramea arean be kezagarriagoa" da. Beraren iritziz, Fundazioaren sariak "bidea markatzen dabe", Euskadi "oparoagoa, bidezkoagoa eta kohesionatuagoa lortzeko". "Ez daukat zalantzarik: herri lege, gure ahaleginik onenak, arbindurik gaukazan gaurko gris hau eraldatzen emongo doguz, eta kolorezko eta ilusino kolektibozko pintzelkadak bihurtuko", ohartarazi zuen..

"Egunen baten amets hori be errealidade bihurtuko dogu, zegaitik ze zeuek, gaur sarituak izan zareen pertsona, alkarte eta erakundeok, bidea erakutsi deuskuzuen, zuen ametsa gaur egun errealidade izatea ekarri dauan bide bapez errez hori" nabarmendu zuen.

Orobat, Juan M^a Atutxak azaldu zuen oraingoan sariak "sari bereziak" direla, zeren beste urteetan ez bezala, aurten kultur ekitaldiaren burua gure lehendakaria, Iñigo Urkullu jauna, baita.



Agertokira irteten lehena izan zen

Bart de Wever politikari flandestarra eta NV-A Flandesko Aliantza Berriako presidentea, zeinek bere uste osoa adierazi baitzuen ezen, Flandesek eta Euskal Herriak "gurari bera" dutela, hots, "Nazio gisa bakoitzak bere lekua izatea Europako Batasunean". Orobat, "egoki iritzi izan zion euskaldunek bista atzerantz itzultzeari kritikoak ere izanda euren historiarekin eta euren aberriaren aitarekin", beraren iritziz gomendagarria izango litzatekeena beste batzuek egin dezaten, "adibidez Madrilen".

Eskaini zuen hitzaldian, dena euskaraz eman zuelarik, De Weverrek gazte zela Iparraldera egin zituen bidaliak gogorarazi zituen, baita "elkartasun politikoaren adibide onak ere, Flandes eta Euskal Herriaren artekoak, "zeintzuk Francoren diktaduraren sasoi hitsera baitoaz". Gainera, nabarmendu zuen, "euskal abertzaletasunaren iraunkortasuna, kemena eta dinamismoa inspiragarri izan direla flandestar abertzale gazteen zenbait belaunaldirentzat".

"Gaur egun, Euskal Herriak eta Flandesek gure berari dute hots, "Nazio gisa bakoitzak bere lekua izatea Europako Batasunean". Adorea ematen digu bide horretan egotea, elkarrekin, adiskide gisa", esan zuen amaitzeko.

Eta goretsia izan zen, halaber, **Euskal Herriko Txistulari Elkarteak Pello Ibarguren** elkarteko presidentea gogorarazi zuen XII. mendean hedatu zela Europan danbolinteroa, eta XIX. mendea izan zela "txistua eta danbolina ikur bilakatzen hasi ziren sasoiak".

"Txistuaren soinua zen, euskaldunen askatasun-egarriaren ikur", adierazi zuen, gero gehitzeko, elkarrekin bazkideak dituela "lurralde guztietan eta, are, "geu gara batasun-lokarri gure mugetatik at bizi diren txistulari askorentzat".

Bestalde, **Idom**, bilbotar enpresako presidente **Fernando Querejetak** eskerrak eman zien enpresako 2.500 langileek egunero garatzen duten lanagatik, eta zera nabarmendu zuen: "Euskadi marka daramagu eta ezin harroago gaude horrezaz". "Geure burua ikusten dugu munduan zehar lehiatzen beste euskal enpresekin batera, euskaldun asko eta askoren lanaren jarraitzaile gisa, hau da, lurralde honen nortasuna oinarri, kanpora irten eta askotan gailendu egin diren herrikide haien jarraitzaile", adierazi zuen. Era berean, azpimarratu zuen, sariak behartu egiten dituela "are gehiago

sendotzera Euskadirekin duten konpromisoa eta biharkoa sustatzera Euskadirentzat denok nahi dugun etorkizun distiratsu hori errealitate egiteko”.

Sarituen artean baita egon zen ere **Gorabide**, desgaitasun intelektuala duten pertsonen aldeko Bizkaiko elkarte, zeinetako presidente **Hugo Barojak** nabarmendu baitzuen, erakundea “ aitzindaria izan zela Bizkaian desgaitasun intelektualaren aldeko gizarte-mugimenduari dagokionez”, eta gaur egun berak du plazarik gehien kolektibo horrentzako zerbitzua ematen. “Gehiago entzun behar diegu desgaitasun intelektuala duten pertsonari... gure betebeharra da euren helburuak lortzen laguntzea, zeren horrela gizarte hobetuko baitugu”, ohartarazi zuen.

Beste saritu bat izan zen, **Mari Puri Herrero** bilbotar margolari eta grabatzailea, Mari Jaiaren sortzailea. Artistak arteak gizakiarentzat duen garrantzia azpimarratu zuen, eta ekin zuen “hura falta zaionak ments du gauza garraantzitsu bat”. Neurekiko gordetzen dut, herri honetan sormen handia dagoelako ideia. Badaude ideiak, eta gogoak, haiek errealitate bihurtzeko”, azaldu zuen.

Azkenik, Sabino Arana Fundazioak baita saritu zituen ere euskal emakume kirolari olinpikoak, zeintzuen artean ekitaldian egon ziren: **Ibone Belaustegigoitia** (ohol-jauzi proba, Londres-1948), **Amaia Andrés** (Atletismoa, Bartzelona-92), **Igone Arribas** (Gimnasia, Sidney-2000), **Ainhua Artolazabal** (Txirrindularitza, Bartzelona-92), **Miriam Bravo** (Atletismoa, Sydney-2000), **Cristina Castro** (Atletismoa, Bartzelona- 92), **Maialen Chorraut** (Piraguismoa, Beijing-2008 eta Londres-2012), **Patricia Elorza** (Eskubaloia, Londres-2012), **Erdoitza Goikoetxea** (Hockeya, Sidney-2000 y Atenas-2004), **Rita María Oraá** (Boleibola, Bartzelona-1992), **Eli Pinedo** (Eskubaloia, Londres-2012), **Zuriñe Rodríguez** (Triatloai, Londres 2012) **Joane Somarriba** (Txirrindularitza, Atlanta-1996, Sidney-2000 eta Atenas-2004), **Maidor Unda** (Borroka, Beijing 2008 eta Londres 2012), **Rocio Ybarra** (Hockeya, Atenas 2004 eta Beijing 2008) eta **Maite Zuñiga** (Atletismoa, Seul 1988, Bartzelona 1992 eta Atlanta 1996).

Belaustegigoitiak gogoratu zuen, 1948 eta 1988 bitartean ez zela egon euskal emakumerik Joko Olinpikoetan parte hartzen, baina urte horretatik aurrera gure ordezkariak ez diote behin ere huts egin hitzorduari, emaitza bikainak lortuz, gainera. “Ezin izan dut ikurrina goratuta eraman, nahi izango nuen bezala, baina Kieven egin ziren Europar Jokoen ostean, 2011n, urrezko hiru dominarekin iritsi nintzen Bilbora, eskerrak emateko Europar Master Ur Jokoetan parte hartzea ahalbidetiu zidatenei”, nabarmendu zuen.

Ekitaldian izan ziren: Iñigo Urkullu lehendakariak gain, kargu horretan haren aurretik jardun zuten Juan José Ibarretxe eta José Antonio Ardanza; Eusko Legebiltzarreko lehendakari Bakartxo Tejería; Bizkaiko ahaldu nagusi José Luis Bilbao eta Bilboko alkate Iñaki Azkunak gain, Eusko Jaurlaritzako sailburuak, UPV/EHUko eta Deustuko Unibertsitateko errektoreak, hurrenez hirren, Iñaki Gorizelaia eta Jaime Oraá, eta gure herriko politika, kultura, gizarte, ekonomia eta kirol arloetako ordezkariak ugaria.

Olerkiak eta musikak ere euren leku nabarmena izan zuten **Andoni Egaña** bertsolariaren eta **Xabier Lizaso** piano-jolearen eskutik. Eta ekitaldia bukatzeko, Lehendakariak banan-banan eman zizkien zorionak sarituei.

10.- BESTE ERAKUNDE ETA INSTITUZIO BATZUEKIKO HARREMANAK

Sabino Arana Fundazioak bere izaera zabalagatik zenbait elkarlan gauzatu ahal izan ditu beste erakunde eta instituzio batzuen ordezkariekin, berez egin ohi dituen jarduerakoez gainerakoak, alegia.

Halakoak 2013n hurrengo hauek izan dira:



Orain dela urte batzuek geroztik, dagoeneko ohiko bihurtu delarik, eta Euskadiko *Irmandade de Centros Galego*ekin (Galiziako Etxeen Elkarte) elkarlanean, otsailaren 23an gorazarrea egin zitzaion Castelaori, Sabino Arana Fundazioak haren oroimenez eraikitako monumentuan.

Uztailaren 11n Bakartxo Tejeria Eusko Legebiltzarreko lehendakariak eta Juan M^a Atutxa Sabino Arana Fundazioko lehendakariak lankidetzat hitzarmen bat sinatu zuten, Fundazioak Euskal Ganberari egiten zion lagapen bat formalizatzea xede, zehazki, hiru gauzaki historiko, Legebiltzarraren Gasteizko egoitza ofizialean erakusgai jarriak izan zitezen.

Lagatako hiru gauzaki horiek dira, **pergamino baliotsu bat**, Jose Antonio Agirre lehendakariak berak eskuz idatzitakoa, zeinetan jasotzen baita kargua zin egiteko zeremonia-esapidea; **argazki bat**, Euzkadiko Jaurilaritza eratu zen unearena, non ikusten baita Agirre lehendakaria bere adierazpen historikoa egiten Gernikako Batzar Nagusien Etxean, beraren sailburuak ere bertan zirela, eta **ikurrin bat**, **Eresoinka** aberri-abetesbatza eta dantza-taldeak erabiltzen zuen ikurrina, zein ekitaldi-buru ere izan baitzen harako 1938 hartan Agirre lehendakariak Companys *presidentari* Belloyko jauregian (Parisen iparraldean) eskaini zion harreran.



Uztailaren 12an, Sabino Arana Fundazioak eta EAJ-PNVren Euzkadi Buru Batzarrak eta Bizkai Buru Batzarrak gorazarrea egin zioten Derioko hilerrian Jesus Insausti “Uzturre”ri, hirurek lehendakari izan zutenari, beraren heriotzaren XX. urteurrenean.

Irailaren 13, 14 eta 15ean, Sabino Arana Fundazioak *Frente del Nalón* birsortze historikoaren II. Jardunaldietan parte hartu zuen Candamoko Udalarekin eta Sancho de Beurko elkartearekin lankidetzan



Urriaren 7an Sabino Arana Fundazioak

ere parte hartu zuen Agirre Lehendakariari Eusko Legebiltzarrean egin zitzaion gorazarrean, hark Gernikan emandako zinaren 77. urteurrenaren karietara. Ekitaldi hartan Fundazioak Euskal Ganberari lagatako hiru gauzakien aurkezpena ere



egin zen

Urriaren 16an Aitzoli eskainitako omenaldian parte hartu genuen.



Eta azaroaren, 28an, 1936-an Nafarroako Fusilatu, Erialdiko eta Desagertuen Senitartekoen Elkarteak Fundazioa bisitatu zuen.



11.- HEDAPENA ETA KOMUNIKAZIOA

Gure helburuetako bat da, urtea bukatu orduko abian ipintzea, behin berritutakoan, web orri berria eta Mezu@ buletin elektronikoa.

Dauden estatistiken arabera, 2013an gure web orriak 77 herrialdeetako internauten 18.000tik gora bisita jaso ditu. Ia 55.000 orri (edo bider) kontsultatu dira geure atarian daukagun informazioaren bila.

Gure Fundazioaren web orriak urte honetan, 2012an guztira izandako bisita kopuruari eutsi ez ezik, baita gainditu ere egin du; aurreko ekitaldiaren aldean ia beste 400 gehiago izan dira gure web-ean lehenengo bider sartu diren bisitari berriak.

Web orriak berak duen egiturari eta beraren programazioak eskaintzen dizkiogun aukerei esker, Sabino Arana Fundazioaren jarduerak aldizka hedatzen dira informatikoki, Mezu@ buletin elektronikoaren bitartez, 7.000tik gora kontaktutara.

Gure edukiak eta zerbitzuak Interneten gero eta gehiago agertze horrek bere isla nabaria izan du jaso dituen kontsulta eta eskarietan; adibidez, Abertzaletasunaren Agiritegiak web orrian ostatatutako formularioen bitartez jasotakoak, eta ondorioz orain artean gehien erabilitako bitartekoen (e-posta eta telefonoa) aurretik jarri da.

12.- LORTUTAKO EMAITZEN BALIOESPENA

Lau dira Sabino Arana Fundazioaren jardueraren atal nagusiak. Zehazki, gogoeta eta

elkarriketarako mintzagunea, Hermes pentsamendu eta historia aldizkaria, Euskal Abertzaletasunaren Agiritegia eta Museoa.

Gogoeta eta elkarriketarako mintzagunearen atalari dagokionez, 2013an diziplinarteko hogeita hamar bat elkarraldi, mintegi, hitzaldi eta mahainguru egin dira.

Mintegietan, batez beste, aztertu xede den arloko 40 bat adituk parte hartzen dute, eta hitzaldietara eta mahainguruetara batez beste 100 eta 200 bitartean pertsona etorri ohi dira. Mintzagune honetatik iazko ekitaldian igaro ziren pertsonaia nabarmenen artean aipa ditzakegu, besteak beste: **David Mc Crone** Edinburgoko Unibertsitateko Eraentza Institutuko zuzendarikidea eta nazionalismoaren eta nazio-identitatearen soziologian aditua; **Mercedes Gallizo** Espetxe Erakundeetako idazkari nagusi ohia; **Javier Mira Benavent** Valentziako Unibertsitateko Zigor Zuzenbideko irakasle titularra; **Gutenberg Martínez** M. de Cervantes Unibertsitateko errektore eta Txileko Diputatu Ganberako, Txileko Alderdi Kristau Demokratako eta ODCako mahaiburu ohia; **Dipankar Gupta** indiar intelektuala; **Francisca Elisabeth Méndez** Mexikoren Espainiako enbaxadorea; **Joan B. Casas** Kataluniako Ekonomialarien Elkargoko dekanoa; **Jone Garmendia** Erresuma Batuko Artxibategi Nazionaleko Katalogazio burua; **Julio Cerdá** artxibo-zaintzan aditua; **Koldo Saratxaga** NER (Harremanetarako Estilo Berria) taldeko arduraduna; **José Ignacio Hormaeche** Energiaren Klusterreko zuzendari gerentea; **Ibon Galarraga** Euskal Klima Aldaketarako BC3 Zentroko irakasle ikertzailea; **Javier Riaño**; pintorea; **Olatz Saitua** sopranoa, etab. Nabarmenezkoak dira, ere bai, Euskalduna jauregian egin ziren elkarraldi biak, DBHko eta Batxilergoko 400 eta 200 ikaslerekin, hurrenez hurren, gizarte-sareek eta Internetek gordetzen dituzten aukerekiko eta arriskuekiko kontzientzia harrarazteko.

Esan behar da, halaber, gure deialdiak irekiak izaten direla eta euskal gizarte osoak parte har dezakeela gure jardueretan eta haien onuradun izan.

Agiritegiari dagokionez, 2013an, zeregin nagusiaz batera, hau da, urtero Agiritegian, dokumentazio-funts berriak erregistratu, instalatu eta deskribatzeaz batera, berritasun nagusia izan da, gure Artxiboaren datu basean (OPAC) ibiltzeko, jendearentzat Internet bidezko doako sarbidea irekitzea; joan den ekainaren 14an ipini zen ikertzaileen eskura.

Beste alde batetik, GOAZ MUSEUM - Sabino Arana Fundazioaren Euskal Abertzaletasunaren Museoak bere jardunaren zatirik handiena argazki-funtsa katalogatzen eman du, bai eta dohaintza berrien erregistroa eta inbentarioa egiten eta, ondoren, beraiek katalogatzen.

Beste alde batetik, HERMES pentsamendu eta historia aldizkariaren hiru zenbaki argitaratu dira, dagoeneko guztira 45 direlarik.

Dagoeneko finkatuta dagoen gure beste kultur jarduera bat Sabino Arana Sariak dira; Fundazioak sari horiek bere jarduerekin hasteaz batera, 1988an, eratu zituen. Hastapeneko nahia eta oraingo asmoa ber-berak dira, hau da, gizarte zerbitzatzeko joragatik eta horretan ipinitako gogo biziagatik nabarmendu diren erakundeei zein norbanakoei omenaldi zintzo eta bihotz-bihotzekoa eskaintzea, besterik ez.

Sabino Arana Sariak urterik urte, huts egin barik, eman izanak sendotu eta sustraitu

egin du saria bera, zein Sabino Arana Fundazioko kideek euren esker onaren erakusgarritzat eman ohi baitiete, egindako lanagatik gailendu diren kolektiboei eta bakoitzak xede izan duen kausaren alde egindakoagatik nabarmendu diren pertsonei.

Bide horretan, bada, Sabino Arana Fundazioak baditu gizarte zein politika arloetako oso gizarte-oinarri ugari eta askotariko baten aintzatespena eta sostengua.

Kultura-gertakari horretara batez beste 1.000 bat pertsona etortzen dira urtero.

Beste alde batetik, beste erakunde eta instituzio batzuekiko harremanez denaz bezainbatean, oso gogara parte hartzen dugu haietariko hainbaten (Euskadiko *Irmandade de Centros Galegos*, beste fundazio batzuk, udalen nahiz aldundien ordezkariak, zenbait ikastetxe, Europar Demokraten Alderdia, etab.) ekitaldietan.

Emandako zenbaki eta datuen argitara, uste dugu, ondo bete ditugula aurreikusitako asmoak eta helburuak.